

ERRENTERIA / Haur eta gazte literaturako liburuei buruzko erakusketa

Xenpelar Etxean jarri dute erakusketa, eta datorren astelehenera arte izango da ikusgai, goizez eta arratsaldez

J. Gonzalo

Andersen; Kipling; Jules Verne; Grimm anaiak; Mark Twain; R. Louis Stevenson; Juan Ramon Jimenez... Haur eta gazte literaturako idazle handien liburuak ikus eta irakur daitezke aste honetan Xenpelar Etxean. Herriko haurrak eta gazteak literaturara gerturatu nahi ditugu, eta horretarako antolatu dugu erakusketa. Halaber, haurrentzako bisita gidatu bat antolatu dugu, liburuak eta egileak ezagutzen hobeto pasa dezaten, azaldu zuen erakusketaren aurkezpenean Maria Jose Pascual Udal Liburutegiko arduradunak.

Liburutegien Eguna

Liburutegien Nazioarteko Eguna izango da datorren larunbatean, eta egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu ditu Eusko Jaurlaritzak.

Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako liburutegietan, Liburutegiak Topaleku ekimena egingo dute, tartean, Errenteria-Oreretakoan. Liburutegietako ateak herritarrei zabaltu eta ahalik eta jende gehien elkartzeara du helburu ekimenak.